

KALEKO SALMENTA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Udalbatzarrak 1996ko martxoaren 29an onartua (1996/04718 GAO)

Udalbatzarrak aldatua

2000/10/26ean (2000/11/13 GAO)

2010/01/07an (2011/04/1 GAO)

2013/04/30ean (2013-07-03 GAO)

HITZAURREA

Merkataritza-etxe iraunkorretik kanpoko salmenta euskal udalerrietako herri-ohituretan oso finkatua dagoen salmenta-mota da, hainbat gorabehera dela eta, azken urteotan asko hedatu dena. Hori dela eta, salmenta-mota horri buruz antzina zegoen ikusmoldea gaingitu da, eta dagoeneko ez da hartzen merkataritza-banaketa finkatuaren ordezkotzat eta osagarritzat.

Kaleko salmentak, hau da, saltoki finkoetan egiten ez den salmentak, gero eta garrantzi handiagoa duenez, beharrezkoa da zenbait neurri hartzea: alde batetik, jarduera horiek lehia aske eta leialean egiten direla ziurtatzeko eta, bestetik, kontsumitzaileen bidezko eskubideak zaindu eta bermatzeko, bai eta horien osasuna eta segurtasuna babesteko ere, eta eskaintzen diren ondasun eta zerbitzuen kalitatea ziurtatzeko.

Asmo horrekin osatu da kaleko salmentaren jardunbidea eta baldintzak arautzen dituen ordenantza hau. Hori guztia indarrean dauden arauak betetzeko

ATARIKO IDAZPURUA. EZARPEN EREMUA

1. atala: Ordenantza honen helburua Arrasateko udalerrian kaleko salmenta arautzea da.

2. atala: Kaleko salmenta, zer den.

Kaleko salmenta, norbanakoak edo lege nortasun dunak izanik, ohiko saltzaileek edo noizean behin saltzen dutenek merkataritza-etxik kanpo egindako salmenta da, saltoki edo eraikuntza desmuntagarrietan edota ibilgailuetan. Kaleko salmentak udalaren baimena beharko du; baimen hori besterenganaezina izango da eta gehienez urtebeteko iraupena izango du, ordenantza honetako 25. atalean jasotako kasuetan izan ezik

3. atala: Kaleko salmenta- motak.

Ordenantza honen ezarpen-eramuari dagozkion kaleko salmenta Motak honako hauek dira:

- a) Betidanik antolatu diren aldizkako merkatuak edota berriak, leku jakinetan jartzen direnak. Geihenez asteen bitan antolatuko dira.
- b) Azokak, jaiak, herriko ospakizunak edo eskulagintza- azokak direla eta, noizean behin ezartzen diren merkatuak.
- c) Kamioi-denda edo kaleetan jartzen diren postuetako salmentak, egoera eta baldintza jakinetan baimendutakoak.

4. atala: Leku jakinetan ezartzen diren aldizkako merkatuak.

1.- Kaleko salmenta egiten den saltegitumultzoak dira honelako merkatuak, betidanikoak zein berriak, eta udalak erabakitako kaleesparruetan egiten dira maiztasun finkoz.

2. Arrasateko udalerrian halako ezaugarriak dituzten azokatzat jotzen du Udalak, Laubide plazan egubakoitzetan astero 9:00etatik 13:00ak arte egiten dutena.

3. Ezarpen berrikoak astean bi egunetan bakarrik egin ahal izango dira, Arrasateko udalak onartzen dituen egun eta orduetan.

5. atala: Noizbehinkako merkatuak.

1. Herriko, estatuko edota autonomia elkarteko jaiak, edo festak direla eta noizean behin antolatzen diren merkatuak dira, bai eta udaldian edota kirol-, kultur- edo jai-giroko gertakariak direla eta antolatzen direnak edota jai horiek ospatzen diren aldian janari-edariak saltzea ere.

2. Modalitate horretan, eskulangintzako azokak daude sartuta, jarduera baten edo jarduera batzuen eta udal baimenak dituzten pertsona titular guztienak diren jardueren babesean sortutako azokak. Izaera berezia dute eta horien kokalekua, aldizkotasuna edo saltoki kopurua aldeztatik zehaztuko du Udalak, alkatearen erabaki baten bidez.

Salmenta egiten duen pertsonak edo beste pertsona batek zuzenean landutako eskulangintzako produktuak saltzea baimentzen du Udalak azoketan, hala nola, larruzko artikuluak, zeramika, pintura, eskultura, apaingarriak, eta abar.

6. atala: Kamioi-dendatan gauzatzen den salmenta.

1. Salmenta-mota hau egiteko, saltzaileak furgoneta- edo kamioi-moduko ibilgailuren bat erabiltzen du, beti ere garraioari eta baimendutako produktuen salmentari dagozkien arauen arabera egokitutakoa.

Iharduera aldizkakoa edo noizbehinkakoa izango da, eta udalaren baimenean agertzearen lekuan edo lekuetan egingo da.

2. Jan-edarien salmentari dagokionez, ibilgailuari egin zaizkion egokitzapenak eta osagarriak ere agertuko dira, ezarri beharreko teknika- eta osasun-arloko araudiak betetzen dituen edo ez egiaztatzeke.

3. Baimena emateko 14. atalean eskatzen diren baldintzez gain, eskabide-egileek honako agiriok erantsi beharko dizkiote eskabideari: ibilgailuaren zirkulazio-baimena, ibilgailua erabiltzen duenaren gida-baimena eta dagokion IAT gaintitu izana egiaztatzen duen agiria.

7. atala: Ezarpen finkoko txosna desmuntagarrietan egiten den salmenta.

1. Kaleko salmenta-mota honetan honako hauek hartzen dira:

a) Karamelu (gozoki) eta fruitu idorren saltokiak.

b) Bisuteria eta eskulanen saltokiak.

c) Zirkuak, antzokiak eta bestelako ikuskizunak ezartzen direnean jartzen diren saltokiak.

2. Ez dira atal honetan sartzen desmuntatzen ez diren saltokiak, honako salgai hauek saltzen dituztenak:

a) Txurro eta frijituen saltokiak.

b) Gaztaina erreen saltokiak.

c) Egunkari eta aldezkarien saltokiak.

3. Espreski salbuesten ez diren gainerako saltokiak kaleko salmentarako hartuko dira.

4. Egunkari, aldizkari, ONCEren txosna eta noizbehinkako argitalpen horiei buruzko berriarazko arauetan ezarritakoarekin bat etorrira arautuko dira.

8. atala: Ez dute inola ere kaleko salmentaren izaera izango:

- 1.- Etxez etxeko salmentak.
- 2.- Urrutiko salmentak.
- 3.- Aldizkako salmentak.
- 4.- Makina automatikoen bidezko salmentak.

9. atala: Ordenantza honetan aurrikusitako kasuez kanpo debekatuta dago kaleko salmenta udalerrri honetan.

10. atala: Salbuetsitako hiri-ingurunea.

1. Salbuetsitako hiri-ingurunean ezin egingo da kaleko salmenta eta ordenantza honen eraskin gisa doan planoan zehaztutako ingurunea da. Eusko Legebiltzarrak merkataritza-iharduerari buruz maiatzaren 27an onartutako 7/1994 Legean gai horri buruz xedatutakoaren arabera egin da plano hori.

2. Arrasateko Udalak Gipuzkoako Merkataritza Bazkun Ofizialari entzun ondoren, salbuetsitako hiri-ingurunea onartu du, ingurune horretako merkataritza-hornikuntzaren eta horrek herritarren kontsumo-gaitasunarekiko duen egokitasunaren arabera.

3. Aurrerantzean antola daitezkeen merkatuetarako ezarriko den salbuetsitako hiri-ingurunea homogenea eta etengabea izango da, eta, beti ere, hirigunean kokatuko da.

4. Debeku honetatik salbuetsita geratuko dira horretarako aginpidea duen Eusko Jaurlaritzako sailak araudi bidez zehazten dituen merkatuak, hau da, azokak, jaiak, herriko ospakizunak edo tradiziokoak direla eta antolatzen direnak. Salbuespen-erabaki hori udalari eta herrian ordezkariak handiena duten merkataritza kontsumitzaile-elkarteei entzun ondoren hartuko da.

I. IDAZPURUA. KALEKO SALMENTARAKO BAIMENDUTAKO SALTOKI ETA PRODUKTUAK

11. Atala: Salmentako produktoak.

1.- Agintaritza eskudunen iritziz osasunerako arriskurik ez duten produktuak saltzea baimendu ahal izango da.

2.- Baimenen jabe direnek, merkaturatzen dituzten produktuen teknika- eta osasun-arloko araudiak eta ezargarri zaizkien gainerako arauak bete beharko dituzte.

12. atala. Saltokiak.

1.- Saltokien kopurua, horietako bakoitzean salduko diren salgaien adierazgarri eta guzti, saltokien neurriak eta gainerako baldintzak bai men bakoitzean zehaztuko ditu organo eskudunak.

2.- Baimenen jabeek zehazten diren baldintzetara egokitu beharko dituzte euren instalazioak, beti ere kontuan izanik instalazio desmontagarri eta garraiagarriak izan beharko dutela, eta segurtasun, osasungarritasun eta kaleko egokitasun baldintzak bete beharko dituztela.

3.- Udalak, merkatuaren funtzionamendu egokirako eta zainketarako, eskalako plano bat egingo du, eta bertan azalduko dira saltoki guztiak nola banatzen diren, zein bere zenbakiarekin. Zenbaki horiek bat etorriko dira udalak emandako baimen eta txartelekin.

13. atala. Janari-edariak kaleetan saltzeko saltokien baldintzak.

Janari-edariak kaleetan saltzeak dituen berezitasunak kontuan izanik, ordenantza honetan saltoki guztietarako ezartzen diren baldintza orokorrekin gain, horrelako produktuak saltzen dituzten

saltokiek merkataritza-produktuei eta instalazio horiei buruzko berariazko arauak ezartzen dituzten garbitasun- eta osasun-baldintzak eta bestelakoak ere bete beharko dituzte.

II. IDAZPURUA. KALEKO SALMENTAEGITEA.

I. ATALBURUA. Kaleko salmenta egiteko baldintzak.

14. atala. Arrasateko udalerrian kaleko salmentarako honako baldintza hauek bete beharko dira:

1.- dagozkion Ekonomi Ihardueraren gaineko Zergaren idazpuruetan izena emanda egotea eta zerga horren ordainketak eguneratuak izatea.

2.- Gizarte Segurantzaren dagozkion jaurbidean izena emana egotea eta kuotaren ordainketak eguneratuak izatea. Lege nortasundunen kasuan, Gizarte Segurantzaren enpresa bezela izena emana egotea, bere langileak afiliatuak izatea eta kuoten ordainkizunak gaurkotuak eukitzea.

3.- Merkataritza-produktuei eta instalazioei buruzko berariazko arauak ezartzen dituzten garbitasun- eta osasun-baldintzak edo bestelakoak betetzea.

4.- Udal-baimenaren jabe izatea.

5.- Dagozkion prezio publikoak ordaintzea.

6.- Atzerritarrei dagokienez, dagozkien egoitza- eta lan-baimenak lortu izana egiaztatzen duten agiriak, edota egoitza izateko eta lan egiteko gaitasuna ematen dien beste edozein agiri.

II. ATALBURUA. Udal-baimenak

15. atala. Baimenak doakionak eskatu ondoren emango dira. Eskabidea udaleko alkatetzara bidaliko da, eta bertan honako hauek adieraziko dira:

a) Eskabide-egilearen izen-abizenak edo bere kasuan, egoitza.

b) NAN edo ANA eta IFZren zenbakia, lege nortasuna dutenen kasuan.

c) Helbidea.

d) Instalazioari eta salgaiei buruzko azalpena.

e) Lege nortasuna dutenen kasuan, jarriko da baita ere baimena erakundearen kontura erabiliko duen langilearen edo kidearen izena, egoitza eta NAN.

f) Lekua, eguna eta orduak, eta hala badagokio, maiztasun eta kokapen finkoko zein merkaturako eskatzen den baimena.

g) Zenbat metro hartuko dituen instalazioak.

16. atala. Aurreko atalak aipatzen duen eskabideaz gain, eskabide-egileak agiri hauek ere ekarri beharko ditu:

a) NAN, ANA eta IFZren fotokopia, hala balegokio. Atzerritarrek beregaineko lan-baimenaren eta egoitza-baimenaren fotokopia, edota egoitza izateko eta lan egiteko gaitasuna ematen dien beste edozein agiri.

b) Gizarte Segurantzako kotizazioen alta eta azkeneko ordainagiria.

c) Ekonomia Ihardueraren gaineko Zergaren alta eta azkeneko ordainagiria.

d) Lege nortasuna dutenen kasuan, enpresa eraketaren agiria, Merkatal Errokan behar bezela izena eman ondoren, hala behar izanez. Era berean, ordezkaritza baliotu egin beharko da zuzenbidearen aldetik indarra duen edozein baliabidez edota, eskaera egileak berak deklarazioa eginez.

e) Janari-edariei dagokienez, janari erabiltzailearen- txartela.

- f) Iharduera horretarako langilerik izanez gero, lan-harremana egiaztatzen duten agiriak ere ekarri beharko dira.
- g) Jabearen izenean iharduera hori gauzatzeko baimena dutenen nortasuna egiaztatzen duten agiriak

III. ATALBURUA. Ihardunbidea

17. atala. Eskabidea eta dagozkion agiriak jaso ondoren, udaleko organo eskudunak agiri horiek eta gainerako txostenak aztertuko ditu, eta baimena eman edo ukatu erabakiko du.

18. atala. Edonola ere, janari-edariak kaleetan saltzeko baimena emateko, agintaritza eskudunaren baietza beharko da.

19. atala: Udalaren baimenak nahitaez honako hauek jasoko ditu:

- Baimenaren jabearen eta haren izenean iharduera gauzatzeko baimenduta dagoenaren edo daudenen identifikazioa.
- Kokapen eta maiztasun finkoko merkatuko saltokiaren zenbakia edo, bestela, iharduera zein tokitan gauzatu daitekeen.
- Baimendutako produktuak.
- Iharduera gauzatzeko egunak eta ordutegia
- Beteko den azalera.
- Instalazioaren ezaugarriak.

20. atala. Baimendutako saltzaile guztiei nortasun- txartela emango zaie, eta bertan honako hauek agertuko dira:

- Jabearen eta baimendutako pertsonen (horrelakorik bada) identifikazioa.
- Salmenta-baimenaren iraupen-aldia.
- Baimendutako produktuak.
- Kokapen eta maiztasun finkoko merkatua bada, saltokiaren zenbakia, edo bestela, iharduera zein tokitan, egunetan eta ordutan gauzatu daitekeen.

Nortasun-txartel hori, beti ere, eskatzen duten udaleko agintaritzaren eskueran egongo da.

21. atala. Baimenak aukerakoak izango dira eta, beraz, udalak ezeztatu ahal izango ditu, baimena emateko arrazoiak desagertu direla uste badu eta ordenantza hau eta arau ezaugarriak betetzen ez badira. Baimena ezeztatzeak ez du kalte- ordaina hartzeko eskubiderik sortuko.

Saltzaile berari, epealdi baten barruan, ezingo zaio eman kaleko salmenta gauzatzeko baimen bat baino gehiago.

22. atala. Udalerrian bertan egoitza duten merkatariak lehentasuna izango dute baimenak esleitzen direnean.

23. atala. Maiztasun eta kokapen finkoko merkatuetan urtean zehar hutsik geratzen diren saltokiak, bestalde, baldintza guztiak bete arren aurretik baimenik lortu ez zuten eskabide-egileen artean esleitzeko dira. Kasu horietan, eskabidearen antzinasuna hartuko da kontuan. Hutsik geratzen diren saltokietan baimendunik bada, lehentasuna izango dute saltokiaren esleipenean.

IV. ATALBURUA.- Udal-baimenaren ezaugarriak.

24.1. Udal baimena eskualdaezina izango da, baina lizentziaren titularra hiltzen bada, erretiroa hartzen badu, laneko erabateko ezintasun bat aitortzen badiote, bai eskualdatu daiteke, edo

pertsona juridikoen kasuan, baimena iraungitzen bada, eta hala gertatzen denean, lizentzia eskualdatu egin daiteke, interesdunak aurretik eskatu eta gero, eta eskualdatzeko zergatia gertatu eta handik 6 hileko epean egin behar da hori. Eskualdaketa, bakar-bakarrik, pertsona hauen alde egin daiteke:

- a. Lizentziaren titularra pertsona fisikoa bada:
 - a.1. Ezkontide alarguna, senar-emaztea, izatezko bikotea eta lehen eta bigarren mailako senideak.
 - a.2. Halakorik ez dagoenean edo interesik ez dutenean a) puntuari aipatzen direnek eta Udalak interesgarriztat jotzen duenean saltokia, salgaiaren arabera eta produktu hori saltzen aritzen diren saltoki kopuruaren urritasunaren arabera, baimendu egin daiteke lizentziaren eskualdaketa soldatuko langileen alde, alta emanda Gizarte Segurantzaren lanpostuan lanean 5 urteko antzintasunaz.”
- b. Lizentziaren titularra pertsona juridikoa bada:
 - b.1. Desagertu den pertsona juridikoaren bazkideek.

Edozelan ere, eskualdaketa hartzen duen pertsonak, jarduerari ekin aurretik, jarduera horretan jarduteko, Herriz herriko Salmentari buruzko Ordenantzak eskatzen dituen baldintzak bete beharko ditu.

24.2. Edozelan ere, lizentziak erabili ahal izango dituzte baimena duten pertsonak.

“Pertsona baimendua” kasua onartuko da bakarrik, lizentziaren titularrak justifikatzen duenean, zergati objektiboez, aldi batez ezin dela arduratu saltokiaz.

“Pertsona baimendua”ren figurak gehienez ere denboran muga izango du kaleko salmentaren baimenaren indarraldia bukatzea, gehienez ere 6 hileko muga.”.

24.3. Pertsona naturalen kasutan, Gizarte Segurantzaren altan emandako titularraren ezkontideak, seme-alabak eta enpleguak ere baimena izan dezakete.

24.4. Pertsona juridikoak direnean, Gizarte Segurantzaren lantza emandako enpresako bazkideak eta enpleguak baimendu ahal izango dira.

25. artala. Baimenak gehienez urtebeteko iraupena izango du, eta baimena ematen den urteko abenduaren 31n bukatuko da, noizbehinkako merkatu eta kamio-dendetan egiten den kaleko salmentaren kasuetan izan ezik. Kasu horietan, baimenean bertan ezarriko da salmenta-mota hori zein egun jakinetan gauza daitekeen. Baimena berritzeko, beharrezko agiriak aurkeztu beharko zaizko udal-agintaritzari horretarako ezartzen den epean.

V. ATALBURUA.- Baimenaren iraungipena

26. artala. Salmenta-baimenaren iraungipen-arrazoi izango dira honako hauek:

- a) Baimenaren iraupen-aldia amaitzea.
- b) Jabeak baimenari uko egitea.
- c) Jabea hiltzea, edo, hala balegokio, enpresa desagitea
- d) Saltokia eskuz aldatzea.
- e) Baimena galtzea dakarren zigorra.
- f) Dagozkion prezio publikoak ez ordaintzea.
- g) Baimena lortzeko eskatzen diren baldintza guztiak edo horietakoren bat galtzea.
- h) Udalak aurretik jakin gabe, 4 astetan jarraian merkatura ez joatea.
- i) Udalak baimena ezeztatzen duelako, 21. atalean ezarrita dagoenez.
- j) Kokapen eta maiztasun finkoko merkatua edo udalerrian kaleko salmenta oro har etetea.

Iraungipena d), e), f), g) h) eta i) arrazoiei badagokie, udaleko organo eskudunak horretarako

erabakia hartu beharko du doakionari entzun ondoren gehienez 15 eguneko epean.

III. IDAZPURUA. KALEKO SALMENTA EGITEN DUTENEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.

27. atala. Eskubideak:

1. Arrasateko udalerrian kaleko salmenta egiteko udal-baimenen jabe direnek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Baimena duteneko saltokiak betetzekoa.
- b) Udalak baimendutako salmenta-iharduera jendaurrean eta baketsuki gauzatzekoa, baimenean zehaztutako ordu eta badintzetan.
- c) Baimendutako iharduera egin ahal izateko, herriko agintaritzen eta udaltzaingoaren babes eskatzekoa.
- d) Baimena eman den merkatua eteten bada, udal-baimenaren jabe denak haren ordeztu egin daitezkeen merkaturan beste saltoki bat lortzeko lehentasuna izatekoa, eta, ahal den neurrian, iraungitako baimenaren baldintza berak gordez.
- e) Iharduera gauzatzea baimentzen deneko merkatuaren funtzionamendua hobetzeko erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.
- f) Udalak baimenaren jabeari nortasun-txartela emateko: txartel horren edukia 20. atalean zehazten da.
- g) Baimenaren jabeak berak saltokian salmentaiharduera gauzatzekoa edota jabearen ezkontideak, seme-alabek eta iharduera horretarako dituen langileek jabearen kontura Gizarte Segurantzaren izena emanda badaude. Baimena eskatzerakoan, udalari jakinarazi beharko dio nor diren atal honetan aipatzen diren pertsonak.
- h) Bere saltokia non dagoen jakitekoa. Saltoki hori, beti ere, galilpotez, solairuz edo porlanez estalitako zoruaren gainean ezarri beharko da.
- i) Salmenta baimentzen deneko egunak udalak ez aldatzekoa, jai edo ospakizun berezi batekin bat ez badatoz behintzat. Kasu horretan, nahikoa aurrerapenaz jakinaraziko dio udalak aldaketa hori.

2. Aldizkako merkaturan kaleko salmenta gauzatzeko udal-baimenaren jabeek, halaber, azoka horietan salmetak eragindako hondakinak jasotzeko esparrua edo edukiontzia erabiltzeko eskubidea izango dute.

28. atala. Betebeharrak.

1. Kaleko salmenta gauzatzeko udal-baimenaren jabeek honako zehaztapen hauek bete beharko dituzte:

- a) Salmenta saltoki edo instalazio desmuntagarrietan egin beharko da, edota 12 eta 13. ataletan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten kamioidendetan, hau da, garria-errazak eta iharduera horretarako egokiak.
- b) Saltokien jabeek agerian ezarriko dute euren udal-baimena. Betebehar hori ez betetzeak edota baimenean zehazten ez diren produktuak saltzeak saltokia badaezpada ixtea ekarriko du, bidezko den zigor-espeditentari hasiera ematearen kalterik gabe.
- c) Saltzaileek, merkataritza-iharduera gauzatzekoan, indarrean dauden unean uneko arauak merkataritza, merkaturako jaurbideaz eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesaz xedatutakoa bete beharko dute.
- d) Saltokietan txartelak eta etiketak ezarriko dituzte, eta horietan ikusteko moduan agertuko dira eskaintzen diren produktuen prezioak. Salgai dauden produktuen prezioa argi eta garbi azalduko da, betiere gai honi buruz indarrean dagoen legeria betetzen dela. Multzoka saltzen diren produktuetan edo saltzeko prezioa janari-edariaren kopuru edo bolumenaren arabera

ezartzen denean, neurriunitate bakoitzari dagokion prezioa adieraziko da. Era berean, salgaien izakin guztiak agerian edukiko dituzte, eta ezin izango da salgai horien zati bat bereizi, aukeratu edo ezkutatu.

e) Saltokien jabe direnak euren postuetan egongo dira merkatuak zabalik dirauen orduetan, nahiz eta behar bezala baimendutako pertsonen laguntza izateko aukera izango duten, ordenantza honetako 27. ataleko g) azpiatalean zehaztutakoaren arabera

f) Behar bezalako erakustagiriak dituzten udaleko langile edo agintaritzak eskatuta, saltzaileek eskatzen dizkieten agiriak erakutsi beharko dizkiete.

g) Aldizka antolatzen den Arrasateko merkatua 9etatik 13etara bitartean egongo da zabalik, eta zamalanak ordutegi horretaz kanpo egin beharko dira. Salmenta orduetan debekatu egiten da ibilgailuak merkatuaren barruan ibiltzea.

Noizbehinkako merkatuen eta eskulagintza-azoken ordutegia horiek onartzeko alkatetzak ematen duen ebazpenean ezarriko da.

h) Salmenta gauzatzen dutenen ibilgailuek ezingo dute merkatuaren barrualdean egon, ez eta saltokiaren ondoan ere.

Salgaien zamalanak egiteko, ibilgailuek merkatuaren barruan aparkatu ahal izango dute lan horiek erabat amaitu arte.

i) Baimenen jabeek salmentarako esparruak eta tokiak errespetatuko dituzte. Salmentarako gune horiek ez dira inoiz toki publiko, pribatu edo merkataritza- edo industria-etxeen sarbideetan jarriko. Era berean, horien erakusmahai edo erakustokiak, trafiko-seinaleak edo bestelako adierazgarriak ikustea eragozten dutela ere ezin izango dira jarri. Kaleen bidegurutzeetan, oinezkoentzako pasaguneetan edo etxebizitza, denda edo ibilgailuetarako gordetako sarreretan ere ezin izango dira ezarri.

j) Kaleko salmeta gauzatzen dutenek kontsumitzaileen erreklamazioak, horrelakorik badago, zein helbidetan jasoko diren adierazi beharko dute ikusteko moduan jarritako txartelaren bidez. Helbide hori, betiere, salmentaren ordainagiri edo egiaztagirian azalduko da.

k) Salgai pisagarri eta neurgarriak eskaintzen dituzten saltokiek arauzko baskula eta metroak izan beharko dituzte.

l) Salgai guztiak behar bezala babesturik erakutsi beharko dira jendaurrean, eta lurretik gutxienez 60 cm.-tara, duten bolumena edo pisuagatik arazoren bat sortzen ez badute behintzat.

m) Janari-edariak ere, ahal den neurrian, produktu bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako edukiontzi homologatuetan erakutsiko dira.

n) Saltzaileek gauzatzen dutenek, doakionak hala eskatzen badu, salerosketaren ordainagiri edo egiaztagiria eman beharko dute, eta horren gutxieneko edukia honako hau izango da:

- Norberaren datuak edo, hala balegokio, egoitzaren izena.
- NAN edo IFZ edo ANA
- Kontsumitzaileen eskaerak hartuko diren tokia.
- Produktua
- Prezioa eta data
- Kopurua
- Izenpea

ñ) Esleitutako saltokitik kanpo ezingo da salgairik saldu, eta geltokien arteko pasabideetan ezingo da zirkulazioa oztopatu.

o) Merkataritza-ihardueraren ondorioz sortzen diren zaborrak, ontziak, bilgarriak eta gainerako hondakinak, beti ere udalak gordetzea baimentzen dituenak, horretarako ezarritako edukiontzietan gordeko dira. Edukiontzi horien ezarpena ezin izango da aldatu kaleko salmentako ihardueraren eraginez.

- p) Saltokiko instalazioak kontserbazio-egoera onean gorde beharko dituzte.
- q) Saltokien jabeek ordaindu beharko dituzte zoruan, zuhaitzetan edo kaleko argietan egindako ditzaketen kalteak.
- r) Erantzukizun zibileko aseguru-poliza izenpetu beharko dute, iharduera gauzatzen den instalazioetan besteei egindako kalteak estaliko dituenak.
- s) Salgaien eskaintza aldarrikatzeko ozengailuak erabiltzea debekatzen da.
- t) Udal-baimen guztien jabeek, kaleko salmenta baimentzen deneko merkatuek funtzionamendu egokia izan dezaten, udaleko agintaritzak eta funtzionarioek ordenantza hau eta gai honi buruzko indarreko legeria ezarriz ematen dizkieten agindu guztiak bete beharko dituzte.
- u) Kaleko salmetarako indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen betebeharrak, edota etorkizunean ezartzen dituenak, ezargarri izango zaizkie udalbaimenen jabeek, eta legedia hori jagoteko eta betetzeko ardura herri-administrazio eskudunetako dagokien organoek izango dute.

2.- Aldizkako merkatuetan, ordezkari-batzordea eratuko da, merkatuko saltokietako jabeen artean demokratikoki aukeratutakoa. Batzorde horrek gutxienez hiru kide eta gehienez bost kide izango ditu, eta horren osieran, ahal den neurrian, merkaturatzen diren salgai guztiak ordezkari izango dute. Merkatuko ordezkari-batzordea merkatuaren ordezkari izango da, eta merkatuari dagozkion arazoak konpontzen saiatuko da udalarekiko.

IV. IDAZPURUA: ZIGORTZEKO ARAUAK.

I. ATALBURUA: Kaleko salmenta jagon eta ikuskatzeaz.

29. atala.

1. Kasu hauetan, aginte eskudunak erabaki dezake merkantziak eta saltokiak kautelaz atzematea:

- a) Produktuen merkaturatzea debekatuta dagoenean, faltsututa daudenean, iruzurrezkoak direnean edo identifikatu gabeak direnean.
- b) Kalean saldu beharreko merkantzia daukanak egiaztatzen ez duenean unean bertan nondik datorren, faktura aurkeztuta, edo egiaztatzen duen agiria aurkeztuta.

2. Merkantziak udaltzainek atzeman eta eramanez dituzte, eta diharduten udaltzainek akta jasoko dute, jardunaren nondik-norakoak eta konfiskatutako produktuen zerrenda jasoko dituzte.

Konfiskatutako produktuek izaera galkorra izaten badute edo legezko merkataritzakoak ez badira, produktu horiek suntsitu egingo dira.

Pertsona bati salgaien bat atzemanaz gero, pertsona horrek udaltzaingoan berreskuratu dezake salgaia, jabea dela egiaztatu eta hura atzemateagatik sortutako gastuak ordaindu eta gero; zenbateko hori zehaztuta egongo da Udaleko Ordenantza Fiskaletan. Salgaiak erreklamatu eta eramanez ez dutenean, 15 eguneko epea igarotakoan, Udalarena izango da eta berak erabakiko du zer egin salgaiekin.

3.- Espedienteari hasiera emateko agintzen duen agintaritzak salgai dauden produktuak badaezpada bahitzea erabaki dezake, baldin eta produktu horiek kontsumitzaile edo erabiltzaileen osasuna edo segurtasuna arriskuan jartzen badute, edo kalitatean edo kantitatean iruzurrezkoak, faltsututakoak, bereizgarririk gabeak edo merkataritzarako ezarri diren gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak badira.

II. ATALBURUA: Zigortzeko ihardunbidea

30. atala. Merkataritza-iharduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean arautzen den Eusko Jaurlaritzako organoen zigortzeko aginpidearen kalterik gabe, ordenantza honetan xedatutakoarekiko arauhausteak udalak zigortuko ditu

31. atala. Ordenantza honetan aurrikusitako arau-hausteak zigorrak ezartzeko eta erabakien aurka jar daitezkeen errekurtsotarako ihardunbidea indarreko administrazio-ihardunbideko arauak ezarritakoa izango da.

32. atala Kaleko salmentarako udal-baimenaren jabeak ordenantza honetan xedatutakoaren aurka eurek, euren familiakoek edo saltokian lan egiten duten soldatapeko langileek egiten dituzten arau-hausteen erantzule izango dira.

III. ATALBURUA: Hutsegite eta zigorrak

33. atala. Arau-hausteak.

1. Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izango dira.

2. Arau-hauste arintzat hartuko dira ordenantza honetako erabakiak ez betetzea, zuzeneko diruondorioz ez dutenean eta kontsumitzaileei kalterik sortzen ez dietenean, larri edo oso larritzat hartzen ez badira.

3. Larritzat hartuko dira honako arau-hauste hauek:

a) Arau-hauste arinak behin eta berriro egitea.

b) Zuzeneko diru-ondorioak dituztenak edo kontsumitzaileei kalte egiten dietenak.

c) Osasunaren inguruko arau-hauste larriekin batera gertatzen direnak.

d) Derrigorrezko udal-baimenik gabe kaleko salmenta gauzatzea.

e) Agintariak eta haien kudeatzaileek ordenantza honetan jagote-lanak gauzatzeko eskatzen dituzten datuak emateari edo eskatzen duten informazioa eskuratzen laguntzeari uko edo aurka egitea, bai eta informazio desegokia, osoa ez dena edo faltsua ematea ere, ukatzea edo trabak jartzea behin eta berriro gertatzen denean edo agintaritzekin edo haien kudeatzaileekin bortxa, mehatxu edo beste edozein presiobide erabiltzen denean.

f) Arauak hausten dituzten iharduerak eteteko eskakizuna ez betetzea.

4. Oso larritzat hartuko dira honako arau-hauste hauek:

a) Arau-hauste larriak behin eta berriro egitea.

b) Osasunaren inguruko arau-hausteekin batera gertatzen direnak edo gizakien segurtasuna arrisku larrian jartzen dutenak.

c) Kontsumitzaileei kalte larriak sortzen dizkietenak.

d) Gehiegizko irabazpidea ematen duten edo ekonomi- antolaketa larriki aldatzen duten arau-hauste larriak.

34. atala: Zigorrak.

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babeserako legedia orokorrean aurrikusitakoa ezartzearen kalterik gabe, arau-hausteak merkataritza-iharduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean xedatutakoaren arabera zigortuko dira. Arau-hauste arinak eta larriak zigortzea udalari dagokio, honako taula honen arabera:

a) Arau-hauste arinen zigorrak honako hauek izango dira:

a1) ohartarazpena.

a2) eta/edo 250.000 PTArainoko isuna.

b) Arau-hauste larrien zigorrak honako hauek izango dira:

- b1) 1.500.000 PTArainoko isuna.
- b2) eta/edo salmenta-baimena galtzea.

2. Arau-hauste oso larriak Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek zigortuko dituzte.

35. atala: Zigor gehigarria.

Espedientea ebaztea dagokion agintaritzak, zigor gehigarri gisa, faltsututako salgaiak, iruzurrezkoak eta bereizgarririk gabeak edo merkataritzarako ezarri diren gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak konfiskatzeko agin dezake.

36. atala: Zigorren mailaketa.

Ezar daitezkeen zigorren mailaketarako, kontuan izango da beti ere saldutako produktuen izaera, egindako kalteak, araua hautsi duenaren asmoa edo behin eta berriro egitea eta arau-haustearen gizarteeragina.

37. atala: Indargaltzea.

1. Ordenantza honetan aurrikusitako arau-hauste eta zigorrek sei hilabetetara galduko dute indarra, arinak badira; urtebetera, larriak badira; eta bi urtetara, oso larriak badira.

2. Arau-haustek indarragaltzeko-epe horiek, gertatu diren egunetik hasiko dira kontatzen.

Doakiona jakinaren gainean egonik, zigortzeko ihardunbidea hasteak preskripzioa etengo du, eta zigor- espedientea hilabete baino denbora luzeagoz geldirik egoten bada, ustez arduraduna denak zerikusirik izan gabe, preskripzio-epeak berriz aurrera egingo du.

3. Zigorrek indarragaltzeko-epea zigorra jartzeko erabakia indarrean jarri eta biharamunetik aurrera hasiko da.

Doakiona jakinaren gainean egonik, egiteratzeko ihardunbidea hasteak preskripzioa etengo du, eta epeak berriz ere aurrera egingo du, arau-hausleak zerikusirik izan gabe ihardunbide hori hilabete baino denbora luzeagoz geldirik badago.

ALDI BATERAKO ERABAKIAK

Lehena.

Ordenantza hau indarrean jarri aurretik emandako kaleko salmentarako baimenen jabeek iharduera hori gauzatzen jarraitu ahal izango dute ordenantza honen babesean, harik eta baimen horien indarraldia bukatu arte. Indarraldi hori, hala ere, eman zenetik gehienez urtebetera amaituko da.

Bigarrena.

Ordenantza hau indarrean jartzen denean izapide-aldian dauden kaleko salmentarako baimena emateko espedienteak (ordenantza hau indarrean jarri aurretik hasiera eman zaielako), ordenantza honetan xedatuta dagoenera lotuko dira ebazpen-aldian. Horretarako, doakienei eskatuko zaie beharrezko diren agiri gehigarriak aurkez ditzatela.

INDARGABETZEKO ERABAKIA

Ordenantza hau indarrean jartzen denetik aurrera, orain onartzen den testuaren aurkakoak diren edo horrekin bat ez datozen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak indargabetu egingo dira.

AZKEN ERABAKIA

Ordenantza hau Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean agindutakoaren arabera jarriko da indarrean.

